

2015EKO IRAILAREN 24AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita laua.

HILABETEA: Iraila.

URTEA: Bi mila eta hamabosta.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak eta erdi.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe.

BILDUAK: Leire Artola Ugalde

Malu Valles Fernandez

Koldo Agirre Mujika

Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal

Santiago Urdampilleta Dos Santos

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2015eko uztailaren 30eko aktaren onespena.

2015eko uztailaren 30eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA. Baldintza agiriak onartzea eta deialdi publikoak egite ondorengo zerbitzuak kontratatzeko:

- Berdintasun eta partehartze alorretan garatu beharreko jardueren aholkularitza eta elkarlan zerbitzua.

Aipatutako zerbitzua kontratatzeko baldintza pleguaren berri eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Guretzat lanpostu finkoa izan beharko litzateke. Dena dela aurrera pausoa da eta alde horretatik poztu egiten gara. Lehengo legealdian guk ere atera nahi izan genuen, baina ez zeniguten utzi. Dagoen pertsonarekin jarraitu nahi zenuten eta plegua atera baino lehen, hitz egin eta plantila nolakoa izan behar zen aztertu egin behar zela esaten zenuten.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ez dugu baztertzeko horrelako plaza bat plantilan aurrekustearena, baina horretarako bide bat egin beharra dago.

Pausoak ematen ari dira, baina oraindik ez gara gai esateko noraino iritsi behar duen horrelako teknikari batek. Pauso bat da. Aurreko legealdian pleguak aurkeztu ziren, baina egia da aurka azaldu ginela eta aurrera pausoak ez zirela eman.”

Leire Artola andreak (EAJ-PNV) esan du 2014ko ekainean pleguak aurkeztu zirela, baina ez zirela onartu.

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Ez zen aukerarik eman. Dena dela harrigarria da egun zinegotzi dagoenak eta orain onartzen duenak, aurreko legealdian aurka azaldu zela.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Mahai gainean utzi zen, etorkizunean deialdi publikoaren bidez lizitatzeko, orduan momento egokia ez zelako.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 2 (Beasaingo EH BILDU)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin erabaki hau hartu da:

Lehenik. Berdintasun eta parte-hartze alorretan garatu beharreko jardueren aholkularitza eta elkarlan zerbitzua prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko deialdi publikoa egitea, baldintza plegu administratiboa nahiz teknikoa onartuz.

1.- *Prozedura*: irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea*: arrunta

3.- *Lizitazio prezioa*: 40.5000 € (BEZ kanpo) urteko.

4.- *Egikaritze epea*: lau urte luzapenik gabe.

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantziario eta teknikoari buruzko agiriak*:

- *Finantza-entitate batek igorritako lizitazzailearen kaudimen-adierazpena.*
- *Enpresariaren eta zuzendaritza-pertsonalaren titulazio akademiko eta profesionalak kreditatzea eta zehazki kontratua exekutatu behar dutenenak.*

- *Azken hiru urteetan kontratua exekutatzeko arduradunek, Toki Administrazioetan kontratuaren helburu den zerbitzuetan egindako lanen zerranda, kopuruak eta datak zehaztuz eta adieraziz zerbitzu horiek erakunde publiko edo pribatuari zuzenduak izan diren.*

6.- *Espediente*a: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.eus). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- *Proposamen eredu*a: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 15 egunetan.

9.- *Adjudikazio irizpide*ak:

- Proposamen ekonomikoa: 20 puntu.

Puntuazioaren kalkulua, formula hau erabiliz lortuko da:

20 x eskaintza merkeena
Baloratzen den eskaintza

- Jarduera memoria: 50 puntu.

Atal honetan ondorengoa baloratuko da:

- Kontratuaren helburua betetzeko proposamen teknikoa eta lan-egitasmo zehatza (gehienera, 4 orri): 40 p.

- Hobekuntzak (Udalarentzat kostua ez duten zerbitzuak ematea baloratuko da, baina beti ere, kontratuaren helburuarekin harreman zuzena badute, kontratuarekiko gehikuntza eta zerbitzuaren eraginkortasunari suposatzen dutenak): 10 p.

- Formazio espezifikoa: 30 puntu.

-
Atal honetan ondorengoa baloratuko da:

- Partaidetzarako formakuntza genero ikuspuntuarekin. 204 ordu
- "Taldeetako formakuntzan aditua"-ren postgradua. 415 ordu.

- Emakume eta gizonezkoen berdintasunerako Masterra: berdintasun agenteak, enpresan espezializatuak. 5 kreditu.

10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

- Hirigintza arloan laguntza tekniko eta juridiko zerbitzua eta Beasaingo Udalaren prozesuko defentsa (administrazioarekiko auzia eta zibila jurisdikzioetan) emateko zerbitzua.

Aipatutako zerbitzua kontratatzeko baldintza pleguaren berri eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Gure jarrera berdintasunekoaren antzekoa da. Guretzat plantilan aurreikusitako lanpostu finkoa izan beharko litzateke, nahiz eta beharbada lanaldia osoa ez izan.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Gai honekin orain arte izan dugun eskarmentuak erakusten digu, arkitektoak astean bi egunetako dedikazioa izanez nahikoa dela. Momentuz plantila eratuta dagoen eran moldatzen gara. Agian, etorkizunean aztertu egin beharko da aparejadore plaza plantilan mantendu edo bere ordezkari arkitektoarena sortu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 2 (Beasaingo EH BILDU)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin erabaki hau hartu da:

Lehenik. Hirigintza arloan laguntza tekniko eta juridiko zerbitzua eta Beasaingo Udalaren prozesuko defentsa (administrazioarekiko auzia eta zibila jurisdikzioetan) emateko zerbitzua prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko deialdi publikoa egitea, baldintza plegu administratiboa nahiz teknikoa onartuz.

1.- *Prozedura:* irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa: 80.941,71 € (BEZ kanpo) urteko.*

4.- *Egikaritze epea: lau urte luzapenik gabe.*

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantziario eta teknikoari buruzko agiriak:*

- *Finantza-entitate batek igorritako lizitazailearen kaudimen-adierazpena.*
- *Arrisku profesionalagatik ordaindu beharreko kalte-ordainen aseguru, gutxienez 100.000 €koa edo kasua bada, kontratazeko konpromisoa esleipenduna izan ezker.*
- *Kontratuan parte hartu behar duten enpresaren barne edo ez dagoen pertsona tekniko edota unitate-teknikoen adierazpena, Enpresariaren eta zuzendaritza-pertsonalaren titulazio akademiko eta profesionalak kreditatzea eta zehazki kontratua exekutatu behar dutenenak.*
- *Enpresariaren eta enpresa zuzendaritzaren titulazio akademikoak eta zehazki kontratua exekutatu duten arkitekto eta abokatuen (epaitegietako defentsa, aholkularitza juridikoa emango duenarekin bat ez badator).*
- *kontratua exekutatu dutenek, euskaraz ahoz komunikatzeko gai izatea (xehetasun hau Udal Euskaltegiak baieztatuko du, B kartazala irekia urretik).*
- *Iragarkia GAOean argitaratzen denean, kontratua exekutatu duten arkitekto eta abokatuak baldintza hauek beteko dituztenen agiriak:*
- *Lanean ari diren profesional kolegiatuak izatea (Profesionalen Elkargoek emandako agiriak).*
- *Toki Administrazioetan aholkularitza urbanistikoan eskarmentua izatea, iragarkia argitaratu baino lehenagoko azken hiru urteetan.*
- *Balorazio urbanistikoetan, higiezinetan eta azterlan ekonomiko eta ingurugiro jasangarri azterlanak egiten eskarmentua izatea, iragarkia argitaratu baino lehenagoko azken hiru urteetan.*

Azken bi baldintza hau kreditatzeko, Toki Administrazioek emandako ongi-betetze ziurtagiriak edota, kasua bada, kontratazio honen helbururako zerbitzuei buruzko jatorrizko edo benetako kontratu, dokumentu edo erabakiak

aurkeztu beharko dira. Bi kasuetan zehaztu egin beharko da zeintzuk izan diren burututako lanak.

- iragarkia argitaratu baino lehenagoko azken hiru urteetan, defentsa arloan eskarmentua izatea, jurisdikzio hauetan: administrazioarekiko auzia eta zibila.

Baldintza hau honela kreditatuko da: prozesuan parte hartu duen abokatuak identifikatzen den sententziak aurkeztuz edota beste edozein modu non dagokion prozeduran parte hartu duen abokatu-laguntza egiaztatu daitekeena.

6.- *Espedientea*: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoaren pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.eus). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- *Proposamen eredia*: Baldintza Administrazioaren pleguaren azaltzen dena.

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: Proposamenak udal-erregistroan aurkeztuko dira 8:00-14:30 bitarteko ordutegiaren barruan. Horretarako, **40 egun naturaleko epea izango da**, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera iragarkia bidaltzen den hurrengo egunetik hasita. Iragarkia igortzearen data, Estatuto Aldizkari Ofizialean nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean adieraziko da.

9.- *Adjudikazio irizpideak*:

1. irizpidea: Proposamen ekonomikoa: gehienez 50 puntu.

Zati finkoa: 35 puntu.

Puntuazioaren kalkulua, formula hau erabiliz lortuko da:

35 x eskaintza merkeena
Baloratzen den eskaintza

Zati aldakorra: 15 puntu.

- %1 baino gutxiagoko beherapena: 0 puntu.
- %1 eko beherapen berdina edo handiagoa eta %2a baino txikiagoa: puntu 1.
- % 2ko beherapen berdina edo handiagoa eta %3a baino txikiagoa: 2 puntu.
- % 3ko beherapen berdina edo handiagoa eta %4a baino txikiagoa: 3 puntu.
- % 4ko beherapen berdina edo handiagoa eta %5a baino txikiagoa: 4 puntu.
- % 5eko beherapen berdina edo handiagoa eta %6a baino txikiagoa: 5 puntu.

- % 6ko beherapen berdina edo handiagoa eta %7a baino txikiagoa: 6 puntu.
- % 7ko beherapen berdina edo handiagoa eta %8a baino txikiagoa: 7 puntu.
- % 8ko beherapen berdina edo handiagoa eta %9a baino txikiagoa: 8 puntu.
- % 9ko beherapen berdina edo handiagoa eta %10a baino txikiagoa: 9 puntu.
- % 10eko beherapen berdina edo handiagoa eta %11 baino txikiagoa: 10 puntu.
- % 11ko beherapen berdina edo handiagoa eta %12a baino txikiagoa: 11 puntu.
- % 12ko beherapen berdina edo handiagoa eta %13a baino txikiagoa: 12 puntu.
- %13ko beherapen berdina edo handiagoa eta %14a baino txikiagoa: 13 puntu.
- % 14ko beherapen berdina edo handiagoa eta %15a baino txikiagoa: 14 puntu.
- %15eko beherapen berdina: 15 puntu.

Prozesuko defentsarako, lizitazio prezioarekiko beherapen portzentaia bakarra baloratuko da bakarrik (Legelarien Euskal Kontseilua). Araututako ordainsari ezberdinen arabera, portzentaia diferenteak eskaintzen badira, eskaintza 0 puntuarekin baloratuko da.

- 2. irizpidea: Eskaintza metodologikoa: 40 puntu.
- 3. irizpidea: Hobekuntzak: 10 puntu

Udalarentzat kostua ez duten zerbitzuak ematea baloratuko da, baina beti ere, kontratuaren helburuarekin harreman zuzena badute, kontratuarekiko gehikuntza eta zerbitzuaren eraginkortasunari suposatzen dutenak.

10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua*: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- *Aurkeztu beharreko agiriak*: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderan atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak bost gutxiagotan amaitu da eta nik idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.